

Jarraian, EKINTZAILEEN ARTEKO LANKIDETZA ETA SUSTAPENERAKO ELKARTEAK, IFZ G-75077503 duena, aurrerantzean, Ekingune, antolatutako “ON EKIN” izeneko ekitaldian parte hartzea arautzen duten oinarriak azalduko ditugu.

## **0.- AURKEZPENA**

Ekingune Ekintzaileen arteko lankidetzeta eta sustapenerako elkarteak “ON EKIN” Ekitaldiaren / Lehiaketaren deialdia atera du.

## **1.- NORI DAGO ZUZENDUA?**

Diru-laguntza txiki batek haien ideia gauzatzen lagunduko dien negozio-ideiaren bat duten pertsona ekintzaileak.

## **2.- PROPOSAMENEN EDUKIA:**

Proposamenek gutxienez hau edukiko dute:

- a) Ideiaren edo proiektuaren izena.
- b) Talde sustatzailearen edo ekintzailearen aurkezpena (gehienez orrialde 1).
- c) Ideia ahalik eta argien eta garbien azaltzen duen txostena (gehienez 4 orrialde).
- d) Zergatik iruditzen zaizu ideia berritzailea edo berria? Zer ekarriko dio zure egungo negozioari (baduzu)? (Gehienez orrialde 1).
- e) Eranskina: Identifikazio dokumentuak gehitu (NAN, IFZ, JEZ alta, edo proiektuaren identitatea egiaztatuko duen bestelako dokumentazioa).
- f) Lehiaketara aurkeztu ahal izateko, ekitaldian parte hartuko duen pertsona bakoitzeko 30€-ko bankuko transferentziaren agiria gehituko zaie gainerako dokumentuei.

## **3.- AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA**

Dokumentuak 2021eko urriaren 8, ostirala, eguerdiko 12:00ak baino lehen aurkeztuko dira.

Ingurumena zaintzen laguntzeko, proposamenak posta elektronikoz bakarrik aurkeztuko dira [onekin@ekingune.com](mailto:onekin@ekingune.com) helbidera.

Bidaliko diren proposamenek haxe adierazi behar dute gaian: **“On Ekin hautagaitza”**.

Aurkeztutako dokumentuetan zerbait faltako balitz edo egokiak ez balira, beste 2 egun izango dira haiek osatzeko edo zuzentzeko, jakinarazpen unetik aurrera..

## **4.- LEHIAKETAREN FUNTZIONAMENDUA**

Hurrengo egitura izango du **“On Ekin”** lehiaketak:

(1) Hautagaitzen aurkezpena

Hautagaitzak aurkezteko epea urriaren 8 izango da, eguerdiko 12:00tan, eta e-postaz bidaliko da nahitaez, [onekin@ekingune.com](mailto:onekin@ekingune.com) helbide elektronikora. Ekingunek hautagaitzak jasoko ditu eta proiektu guztiek oinarri hauetako 2. atalean azaldutako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzeko, bakoitzaren dokumentuak aztertuko ditu.

(2) Proiektu irabazleen aukeraketa

Fase honetan zehar, Ekingunek aukeratutako ekintzailetza munduan aritzen diren epaimahai inpartzialak aurkeztutako proiektuen artean aukeratuko dituzte irabazleak. Epaimahaiak oinarri hauen 7. atalean zehaztutako irizpide batzuen arabera aukeratuko eta onartuko ditu aurkeztutako proiektuak.

(3) Ekitaldia eta sarien banaketa

2021eko urriaren 28, osteguna

, On Ekin ekitaldian banatuko dira epai-mahaiak aukeratutako sariak: Lehenengo, bigarren eta hirugarren saria.

Horrez gain, ON EKIN Sari Herritarra deritzon laugarren saria ere banatuko da. Hauxe demokratikoki aukeratuko da une horretan ekitaldian parte hartzen ari diren pertsona guztien botoen bidez. Horretarako, bozketaren aurretik proiektu guztien aurkezpenak bistaratu dira. Bideo horiek Ekingunek grabatuko dizkie parte hartzaile guztiei “Pecha Kucha” formatuan (aurkezpen bisuala + denbora mugatua), proiektu guztiek haien hautagaitzak ezagutzera emateko aukera berberak izan ditzaten. Proiektu guztiak ikusi ondoren, bertan daudenek soilik bozkatuko dute. Boto gehien lortzen dituen izango da sari honen irabazlea.

Berdintasun kasuetan, antolakuntzak bozketa errepikatzea erabaki ahal izango du ekitaldia antolatzeke orduan erabakitako irabazle kopuruak bezainbeste irabazle geratu arte.

Ez da onartuko aurkeztea, egikaritzea edo garatzea legez kanpo egon daitekeen proiekturik edo ideiarik, ezta pertsona edo kolektibo baten eskubideak urra ditzaketarik, ezta sexu-genero, adin, sinesmen, ideologia edo beste arrazoren batean oinarrituta indarkeria edo baztertzeko susta dezaketarik ere.

Ekitaldian parte hartu nahi duen edonork har dezake parte, aurkeztutako proiektuekin lotuta egon ala ez, proiektu bakoitzeko 4 pertsonako gehieneko mugarekin.

ON EKIN ekitaldira etorri nahi duen orok [onekin@ekingune.com](mailto:onekin@ekingune.com) helbide elektronikoan jakinarazi beharko dute, edo 943 507 863 / 688 734 292 telefonoetan, eta 30 € sartu beharko dituzte (25 afarirako eta 5 sariarentzako) ES74 3008 0171 6143 4344 5328 kontuan, 2021eko urriaren 27aren aurretik. Gehienez 50 pertsonarentzako tokia

Ekitaldian “streaming” bitartez parte hartuko duten pertsonak 5 euro sartuko dituzte arestian aipaturiko kontuan urriaren 27aren aurretik, eta harremanetarako datuak bidaliko dituzte (helbide elektronikoa eta telefonoa) [onekin@ekingune.com](mailto:onekin@ekingune.com) helbide elektronikora, parte hartu ahal izateko esteka bidaltzeko. Streaming bidez parte hartzen dutenek ezingo dute urrutitik botoa eman.

Ekingunek ekitaldia atzeratzeko eskubidea du, behar adina hautagaitza ez baleude edo bere erruz ez diren kausengatik, Covid-19ak eragindako Pandemia esaterako. Ekingunek izendatutako epaimahaiak saria esleitu gabe utz dezake.

## **5.- BETEKIZUNAK:**

a) Adineaz nagusi izatea.

b) Datu pertsonal guztiak eta egiazkoak ematea.

c) Ekitaldiaren/lehiaketaren terminoak eta baldintzak onartzea.

d) Saria jasotzeko, ideia 2022ko urriaren 28aren aurretik abian jarri behar da. Betekizun hori egiaztatzeko, egiaztagiria aurkeztu beharko dira (JEZ alta, autonomoen alta, fakturak, nominak, etab.).

e) Proiektuak jatorrizkoak eta ezezagunak izan behar dira, eta gaztelaniaz edo euskaraz egongo dira idatzita.

g) Proiektua dagoeneko abian den enpresa batek aurkeztuko balu, honen jarduerak ezin dira 2020ko urtarrilaren 1a baino lehenago ekinak izan, eta egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan izan beharko du nahitaez.

Barne-ekintzailetzako proiektuak direnean, antzinate handiagoko enpresak aurkeztu ahal izango dira, beti ere aurkezten den proiektua enpresa berri gisa edo negozio ildo berri gisa aurkezten bada, oinarri hauetan aurreikusitako terminoetan.

## **6.- SARIA:**

Ekitaldian parte hartuko duen bakoitzak 5€-ko ekarpena egingo du, sari herritarra finantzatzeko.

**1. saria:** 1.500€-ko bermatutako saria, Eibarko Udalaren eskutik. Horrez gain, Ekinguneren Web orrian urte batez haren iragarkia jarriko da, proiektu irabazlearen webgunerako estekarekin eta tokiko aldiakari batean erreportajea negozioa sustatzeko xedearekin.

**2. saria:** 500€-ko saria Ekinguneren eskutik.

**3. saria:** 300€-ko saria, Seguros Axako Mariella Saitzen eskutik.

**SARI HERRITARRA:** espezieetan jasoko den saria da, ekitaldian parte hartuko duten pertsonen ekarritako diruaren arabera (5€ bertaratuta zein *streaming* bidez parte hartuko duen pertsona bakoitzeko). Saria 2022ko urriaren 28ra arte trukatu ahal izango da Ekinguneko bazkideek proposatutako zerbitzuekin. <https://ekingune.com/socios>

Aurkeztutako gainerako proiektuek aipamen berezia izango dute Ekinguneren web orrian.

## 7.- EPAIMAHAIA

Epaimahaia Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa, erakunde eta prestakuntza munduko pertsona garrantzitsuek eratuko dute, eta proiektuen kalitatea balioztatuko du eta haiek oinarriak betetzen dituzten ala ez egiaztatuko du.

Hauek izango dira epaimahaiko kideek baloratuko dituzten irizpideak, guztira 10 punturekin:

| IRIZPIDEA                                              | PUNTUAK  |
|--------------------------------------------------------|----------|
| Bideragarritasuna                                      | 3 puntu  |
| Berrikuntza / Berritasuna                              | 2 puntu  |
| Talde sustatzailea                                     | 1 puntu  |
| Emakumeek sustatutako proiektuak                       | 1 puntu  |
| Ekonomia zirkularrari edo berdeari lotutako proiektuak | 1 puntu  |
| Ekintzailetza sozialari lotutako proiektuak            | 1 puntu  |
| 4.0 industria barruko proiektua                        | 1 puntu  |
| GUZTIRA                                                | 10 puntu |

## 8.- JABETZA INTELEKTUALA

Lehiaketaren deialdi honetara aurkeztu diren proposamenak gauzatzeko titulu eta legitimazioa onesten dute, eta jabetza intelektualeko edo Espainian zein atzerrian beste batek edukien gainean izan dezakeen bestelako eskubiderik urratzen ez dutela adieraziko dute. Antolaketa proiektu horren inguruko erantzukizun orotik kanpo utziko dute. Edonola ere, parte hartuko duten pertsonen euren gain hartuko dituzte haien proposamenek hartzen dituzten edukien erabilerak, erreproduzioak, hedapenak edo banaketak eragin ditzaketen kalteak.

## 9.- DATU PERTSONALEN BABESA

Datu Pertsonalen Babesaren inguruko araudia beteaz, parte-hartzaileak baimena ematen du emandako datu pertsonalak Ekingune Ekintzaileen Elkartearen erantzukizuneko Jarduerak izeneko fitxategian gordetzeko, IFZ: G-75077503 eta egoitza soziala Azitain industrialdea 3 K, 2. solairua Eibargunea, 20600 Eibar (Gipuzkoa).

Tratamendu honen xedea erakundeak antolatzen dituen jardueren kontrola eta kudeaketa da, eta baita haien sustatu eta haietan parte hartzea, eta zure eskaerari erantzutea ere. “On Ekin” ekitaldia / lehiaketa bukatu eta sariak banatu arte gordeko dira datu horiek.

Halaber, parte-hartzaileak baimena ematen du datu horiek Ekinguneren bazkide edo babesleei lagatzeko. Lagatze horren helburua parte hartzaileei eskainiko zaizkien sariak gauzatzea dela ulertuko da. Datu horiek lagatzen diren unetik tratamendu horren erantzuleak Ekinguneren bazkide edo babesleak izango dira, eta Ekingunek ez du inolako erantzukizunik izango baimendutako enpresa horiek legez kanpo edo gaizki tratatzearen ondorioetan.

Era berean, parte hartzaileek berariaz onartzen dute bere identitatea **Ekinguneren** web orrian azaltzea berretsitako parte-hartzaile gisa.

Edonola ere, interesatuak emandako baimena ukatu ahal izango du nahi duenean, eta baita bere datuen atzitze, zuzentze edo ezabatze eskubideak erabili ahal izango ditu, eta haien tratamendua mugatu edo haren aurka egitekoak ere, eta baita bere datuak eramateko eskubidea ere. Eskakizun horiek Azitain industrialdea 3 K, 2. solairua Eibargunea, 20600 Eibar (Gipuzkoa) helbidean egin behar dira, edo posta elektronikoz hurrengo helbidean: [ekingune@ekingune.com](mailto:ekingune@ekingune.com)

Halaber, erreklamazioa jarri ahal izango da Datuen Babeseko Espainiako Agentzian.

## 10.- EHINGUNERI ESKUBIDEAK ONESTEA

Proiektu irabazlearen sustatzaileak hurrengo konpromisoak hartzen ditu:

- **Ekinguneri** proiektuaren izena, ikur bereizlea, markak, logotipoak edo proiektuak ezaugarri gisa erabiltzen dituen gainerako elementuak sustatzeko erabiltzen dituen **Ekingunek** antolatutako ekitaldietatik sortutako proiektuen adibide gisa baliabideetan erabiltzeko baimena ematea.

- **Ekinguneri** proiektuaren abian jarri izanaren berri ematea, eta baita haren kapital sozialean edo negozio-garapenean eragina duten operazio garrantzitsuei buruz informatzea, proiektuaren jarraipena errazteko. **Ekingunek** isilean gordeko du hedatu ez den eta proiektua sustatzen duenak erregistro publikoetan ez datorren informazio konfidentziala.

- Bere web orriko hasierako orrian **Ekinguneren** logotipoa jartzea, honen web orrirako estekarekin. Logotipoa webgunearen bazkideen, kolaboratzaileen edo ikusgai dagoen eta erraz hautematen den atal batean jarriko da.

Proiektu buruak adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatuko du, proiektua beste bazkide batzuekin batera edo hirugarren batek garatzen badu ere.

## 11.- IRUDIEN ESKUBIDEAK

Proiektu irabazlearen sustatzaileak, bere izenean eta bere burua ordezkatzuz, berariazko baimena ematen dio Ekingune Ekintzaileen Elkarteari, zeinaren IFZ: G-75077503 den, bere irudia eta datu pertsonalak erabili ditzan (izena, abizenak, jatorria eta esperientzia profesionalaren edota pertsonalaren xehetasunak) :

☐ Baimena ematen dut:

☐ Irudiak ateratzea

☐ Irudiak gero hurrengoetan erabiltzea:

☐ Webgunea

☐ Sare sozialak:

☐ Facebook

☐ Twitter

☐ Youtube

☐ baimendutako erakundeak aldizkarietan, argitalpenetan, erakusketetan edo beste baliabideren batean ateratzea.

☐ Ez dut baimena ematen:

☐ Irudiak ateratzea

☐ Irudiak gero hurrengoetan erabiltzea:

☐ Webgunea

☐ Sare sozialak:

☐ Facebook

☐ Twitter

☐ Youtube

☐ baimendutako erakundeak aldizkarietan, argitalpenetan, erakusketetan edo beste baliabideren bidez ateratzea.

Hori guztia 1/1982 Lege Organikoa beteaz, Ohorerako Eskubidearen, Norberaren eta Familiaren Intimitatearen eta norberaren irudiaren Babes Zibilekoa, datu pertsonalen babeseko araudia beteaz zeinak baimena ematen duen emandako datu pertsonalak Ekingune Ekintzaileen Elkartearen erantzukizuneko Irudiak izeneko fitxategi batan gordetzeko (egoitza soziala Azitain industrialdea 3 K, 2. solairua Eibargunea, 20600 Eibar (Gipuzkoa). Helburua ateratzen diren eta komunikabideetan argitaratzen diren irudien kontrola eta kudeaketa da.

Datu horiek argitaratzeko baimena duten komunikabideak atzitzen dituzten pertsona ororen eskura egongo dira, eta eperik gabe gordeko dira bertan xede historikoekin.

Edonola ere, emandako baimena ukatu ahal izango da nahi denean, eta baita bere datuen atzitze, zuzentze edo ezabatze eskubideak erabili ahal izango dira, eta haien tratamendua mugatu edo haren aurka egitekoak ere, eta baita bere datuak eramateko eskubidea ere. Eskakizun horiek Azitain industrialdea 3 K, 2. solairua Eibargunea, 20600 Eibar (Gipuzkoa) helbidean egin behar dira, edo posta elektronikoz hurrengo helbidean: [ekingune@ekingune.com](mailto:ekingune@ekingune.com)

Halaber, erreklamazioa jarri ahal izango da Datuen Babeseko Espainiako Agentzian.

-----

Ekitaldietan parte hartuko duen orok, bere izenean eta bere burua ordezkatuz, berariazko baimena ematen dio Ekingune Ekintzaileen Elkarteari, zeinaren IFZ: G-75077503 den, bere irudia eta datu pertsonalak erabili ditzan (izena, abizenak, jatorria eta esperientzia profesionalaren edota pertsonalaren xehetasunak) :

☐ Baimena ematen dut:

☐ Irudiak ateratzea

☐ Irudiak gero hurrengoetan erabiltzea:

☐ Webgunea

☐ Sare sozialak:

☐ Facebook

☐ Twitter

☐ Youtube

☐ baimendutako erakundeak aldizkarietan, argitalpenetan, erakusketetan edo beste baliabideren batean ateratzea.

☐ Ez dut baimena ematen:

☐ Irudiak ateratzea

☐ Irudiak gero hurrengoetan erabiltzea:

☐ Webgunea

☐ Sare sozialak:

☐ Facebook

☐ Twitter

☐ Youtube

☐ baimendutako erakundeak aldizkarietan, argitalpenetan, erakusketetan edo beste baliabideren batean ateratzea.

Hori guztia 1/1982 Lege Organikoa beteaz, Ohorerako Eskubidearen, Norberaren eta Familiaren Intimitatearen eta norberaren irudiaren Babes Zibilekoa, datu pertsonen babesezko araudia beteaz zeinak baimena ematen duen emandako datu pertsonalak Ekingune Ekintzaileen Elkartearen erantzukizuneko Irudiak izeneko fitxategi batan gordetzeko (egoitza soziala Azitain industrialdea 3 K, 2. solairua Eibargunea, 20600 Eibar (Gipuzkoa)). Helburua ateratzen diren eta komunikabideetan argitaratzen diren irudien kontrola eta kudeaketa da.

Datu horiek argitaratzeko baimena duten komunikabideak atzitzen dituzten pertsona ororen eskura egongo dira, eta eperik gabe gordeko dira bertan xede historikoekin.

Edonola ere, emandako baimena ukatu ahal izango da nahi denean, eta baita bere datuen atzitze, zuzentze edo ezabatze eskubideak erabili ahal izango dira, eta haien tratamendua mugatu edo haren aurka egitekoak ere, eta baita bere datuak eramateko eskubidea ere. Eskakizun horiek Azitain industrialdea 3 K, 2. solairua Eibargunea, 20600 Eibar (Gipuzkoa) helbidean egin behar dira, edo posta elektronikoz hurrengo helbidean: [ekingune@ekingune.com](mailto:ekingune@ekingune.com)

## 12.- EKITALDIA BERTAN BEHERA UZTEA

**Ekingunek** eskubidea du ekitaldia egiteko aurreikusitako data aldatu edo bertan behera uzteko. Hala gertatuz gero, haiek jarritako dirua itzuliko zaie parte hartzaileei, ekitaldia egiteko data berrian joaterik ez dutenean.



Ekitaldiaren antolaketaren erruz ez denean ez da izen ematearen kuota itzuliko.

### 13.- INTERPRETAZIOA

“On Ekin” ekitaldian zehar Oinarri hauek aplikatzearen ondorioz edo interpretazioan oinarritutako zalantzarik edo ezadostasunik balego, **Ekingunek** ebatziko du, zeinak gatazka guztiak ebazteko edo jarrera, prozedura edo ekitaldien garapeneko arauak zehazteko gaitasuna duen, eta baita **Ekinguneren** ekitaldi guztietan parte hartzaileek ekitaldian izango duten jokabidearen inguruan ere. Ildo horretan hartutako ebazpen oro loteslea izango da hartan parte hartuko duten pertsonentzat eta azkena izango da. Ezingo da haren aurka agertu edo errekurtsorik aurkeztu.

Alderdiek adosten dute kontratu honetan bildutako arauen negoziazioaren, interpretazioaren, betetzearen, ez betetzearen edo egikaritzearen inguruan sortutako zalantzak edo gatazkak Eibarko hiriaren Epaitegi eta Auzitegien jurisdikziora eramatea, eta, haren bizitokiari legokion foruari uko egingo diotela.